



Nork: Imanol Saiz - Api 29, 2017

## [BIDEOA] HASI DA XXIX. SAGARDO EGUNA!



Ehunka lagun gerturatu dira gaur eguerdian Xenpelar plazako sagardo postuetara.

Hasi da XXIX. Sagardo Eguna Erreneria-Oreretan, hasi da festa handia Xenpelar plazan. 12:00etan eman diote hasiera egunari, azken urteko izerdia bota ostean, lortutako utzaz gozatzeko, Gorenak markako hamar postuetan.

Eguraldi paregabea gaurkoa jai giroan ospatzeko. Eguzkia, sagardoa, jatekoa, musika, dantza... Badute zer egin gaurkoan Erreneria-Oreretako eta gertuko herrietako bizilagunek. Goiz-goizetik hasi dira antolakuntzatik sagardo eta janari postuen muntaketa lanekin, eguerdirako dena prest izan zedin.

Ehunka lagun gerturatu dira —eta oraindik ari dira— Xenpelar plazan kokatutako sagardo postuetara. Goizean Gorenak markako ondorengo sagardoak dastatzeko aukera izan da: Gaztañaga, Isastegi, Barkaiztegi, Altzueta, Zelai, Egi-Luze, Gurutzeta eta Alorrene. Sagardoaz gain, bertako kalitatezko produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izango da egunean zehar Ataungo eta Oreretako talogile, Aparola baserriko barazki, Usurbil eta Ermuako gozogile eta Lukugaraingo gazta egileen eskutik. Goizeko txotxari hasiera emateko, lehenik, txalaparta saioa egin dute Xenpelarren. Ondoren, Ereintza Dantza Taldeak, Ermuako dantzariekin batera, urteroko Sagar Dantza egin dute. Txalo zaparradarekin eman diote ongi etorria aurtengo sagardo uzteri.

Oraindik ordu asko geratzen dira aurretik, baita sagardo mordo ere. Arratsaldean, 18:00etan, txotx ofizialaren unea izango da. Bertan, hogeita zortzi postutan banaturik, herriko, gertuko eta Euskal Herriko hainbat sagar zuku dastatzeko aukera izango dute erreneriarrek. Zortziak bitarte, triapak lehertu arte edari eta jakiz beteko dira sagardo zale guztiak, egun luzeari aurre egiteko. Hori bai, gogoratu, ondo pasa behar dela, baina pasatu gabe!



HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSA ANTOLATU DU ORERETA IKASTOLAK

### LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



[Galeria] Milaka txotx Erreneria-Oreretak ...

Nork: Imanol Saiz - Api 29, 2017

■ Erreneria-Orereta



XXIX. Sagardo Eguna hemen da jada

Nork: Imanol Saiz - Api 26, 2017

■ Erreneria-Orereta



Sagardogileek ere itsasoratu nahi dute

Nork: olatz mitxelena - Abe 15, 2016

■ Kultura



Erreneriak elkartutako kizki biltzaile k ...

Nork: Ainhoa Mariezkurrena - Ira 21, 2016

■ Erreneria-Orereta

### Albiste irakurrienak



[GALERIA] DENBORALDIA BUKATZEKO EGUN BOROBILO



[BIDEOA] AMNISTIAREN ALDEKO ASTEAN HILDAKOAK GOGOAN



IMANOL SAIZ


Ez dago ekarpenik

**EGIN IRUZKIN BAT**

Izena \*

Email \*

Website



CAPTCHA Code \*

**BIDALI IRUZKINA**

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

© Oartzualdeko Hedabideak S.L. • Santa Klara kalea, 22, Errenteria-Orereta 20100 - Tel.: 943-34 03 30 - E-posta: oarsobidasoa@hitza.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

